

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PAGANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea Arabako Errioxako Ur partzuergora atxikitako udalerri eta erakunde publikoetako ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzua eskainiko duen merkataritza sozietatea erabat kapital publikoz eratzeko txosten soziala, juridikoa, teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa

Administrazio batzar honetako kontzejuak, urriaren 28ko bileran, erabaki zuen jendaurrean jartzea kapital osoa publikoa duen merkataritza sozietate bat eratzeko alderdi sozial, juridiko, tekniko, ekonomikoa eta finantzariori buruzko memoria, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari atxikitako udal edo erakunde publikoen ur horniketa eta saneamendurako zerbitzu publikoko jarduera emateko.

Txosten hori administrazio batzarraren bulegoetan egongo da ikusgai 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe horretan egoki irizten diren oharrak aurkeztu ahal izan daitezten.

Paganos, 2020ko urriaren 30a

Lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ